

**Ebazpena: RA02/2024**  
**Espedientea: E031/2021**

Vitoria-Gasteiz, 2024ko otsailaren 26a

Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Itunaren Arbitraje Batzordea honako hauek osatzen dute: Violeta Ruiz Almendral presidentea, eta Sofía Arana Landín eta Javier Muguruza Arrese bokalek. Bada, honako hau erabaki dute:

### **ERABAKIA**

Arbitraje Batzorde honen 2023ko urriaren 18ko 93/2023 Ebazpenean egindako oker materiala zuzentzea. Ebazpen horretan, Zerga Administrazioako Estatu Agentziak (aurrerantzean, ZAEA) gatazka planteatu zuen Arabako Foru Aldundiaren (aurrerantzean, AFA) aurrean, KHSLk 2017ko ekitaldian langile jakin batzuei ordaindutako lan-etekinengatik PFEZaren ondoriozko atxikipenak ordainarazteko eskumena zehazteko. Gatazka hori Arbitraje Batzorde honetan izapidetu zen, 31/2021 espediente-zenbakiarekin.

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 109.2 artikulua arabera —hari egiten dio erreferentzia abenduaren 28ko 1760/2007 Errege Dekretuaren bidez onartutako Ekonomia Itunaren Arbitraje Batzordearen Araudiaren 8. artikulua—, administrazio publikoek edozein unetan zuzendu ahal izango dituzte beren egintzetako oker materialak, egitezkoak edo aritmetikoak, ofizioz edo interesdunek eskatuta.

Oker material bat atzeman da Arbitraje Batzorde honen 2023ko urriaren 18ko 93/2023 Ebazpenean. Horiek horrela, Arbitraje Batzordeak

### **ERABAKITZEN DU**

1.- 2023ko urriaren 18ko 93/2023 Ebazpenean egindako oker materiala zuzentzea, honela:

2. zuzenbide-oinarrian, honako hau dio:

«ZAEAk, azken alegazioen izapidean, eskaera bat aurkeztu zuen 31/2021 zenbakiarekin izapidetzen ari den gatazkari dagokion prozeduran atzera egindakotzat har dezaten, eta onartu zuen AFari dagokiola Sek hartzaile jakin batzuei 2017ko ekitaldian egindako PFEZaren ondoriozko lan-atxikipenak ordainarazteko eskumena, kontuan hartuta Ekonomia Itunaren 7.Bat.a) artikuluan xedatutakoa, *ratione temporis* idazkera aplikagarrian. Horren ondorioz, bi administrazioen arteko gatazka bertan behera geratu da, eta horrek Ekonomia Itunaren Arbitraje Batzordearen aurrean bideratutako prozeduraren xedea gerora galtzea eta, horrenbestez, artxibatzea ekarri du».

Baina hau esan behar du:

«ZAEAk, azken alegazioen izapidean, eskaera bat aurkeztu zuen 31/2021 zenbakiarekin izapidetzen ari den gatazkari dagokion prozeduran atzera egindakotzat har dezaten, eta onartu zuen AFari dagokiola KHSLk hartzaile jakin batzuei 2017ko ekitaldian egindako PFEZaren ondoriozko lan-atxikipenak ordainarazteko eskumena, kontuan hartuta Ekonomia Itunaren 7.Bat.a) artikuluan xedatutakoa, *ratione temporis* idazkera aplikagarrian. Horren ondorioz, bi administrazioen arteko gatazka bertan behera geratu da, eta horrek Ekonomia Itunaren Arbitraje Batzordearen aurrean bideratutako prozeduraren xedea gerora galtzea eta, horrenbestez, artxibatzea ekarri du».

2.- Erabaki hau Zerga Administrazioko Estatu Agentziari, Arabako Foru Aldundiari eta KHSLri jakinaraztea.